

# Bageraren buletina

2019 ekaina

## Kaixo bagerakide!

Ekaineko buletinaren bidez, hilabete honetan eskuartean ditugun eginkizun nagusien berri eman nahi dizugu.

BI IBILBIDE  
ELKARRIZKETAN



**Begoña del Teso**  
eta **Jon Garaño**

Moderatzailea: **Ion Olano**

## "Bikografiak"

Solasaldi informalak izango dira, biografia linguistikoak oinarrian hartuz, euskararen biziberritzearen gako nagusiak lantzea izango da helburua. Gai soziolinguistikoek gure esperientzia pertsonaletan eta eguneroko bizitzetan duten isla agerian jarri nahi dugu: ditugun bizipenak, gogoetak, kontraesanak eta abar. Horretarako bi gonbidatu elkarrizketatuko ditugu: Begoña del Teso (zinema-kritikari eta kazetaria) eta Jon Garaño (Zuzendaria/Gidoilaria/Ekoizlea). Gidari lanetan Ion Olano arituko da.

Lehen saioa **ekainaren 13an**, 19:00etan Tobacco Days liburu-dendan (Tabakalera) egingo du.



## Mintzalagun egitasmoaren 25. urteurrena

Hilabete honetan izango da Mintzalaguna egitasmoaren 25. urteurren ospakizuna. Bai, azkenean iritsi da eguna! **Ekainaren 14an** ospatuko dugu arratsaldeko 19:00etan San Telmo Museoan antolatu dugun ekitaldi berezi batekin. Ondoren, 21:00etan afaria egingo dugu Kresala elkartearen. Afariko txartelak Bagera Elkartearen ditugu salgai 20 euroan. Beraz, bizkor ibili afariko txartela eskuratzeko.

## Elkarrizketa Filosofikoak

Ikasturteko azken saioa berezia izango da. Agustin Arrieta Urtizbera (Filosofiako irakaslea EHUUn) izango dugu gonbidatu gisa **ekainaren 3an**, 19:00etatik 20:30era, egingo dugun solasaldian. Gaia: Erljioa eta identitatea. Lekua: Urrats euskaltegia. Irakurtzeko: *Sinesmenak eta usteak*. Agustin Arrieta Urtizbera (Alberdania, 2010).

...

## Mendian ere euskaraz

Oporren aurreko azken irteera antolatu dute [URBASAKO BASO SORGINDU](#)ra *Mendian ere euskaraz* ekimeneko lagunek.

8 kilometroko ibilbidea da eta 300 metroko desnibela du.

Eguna: **Ekainak 30**

Ordua: 10:00etan.

Abiapuntua: Olaztitik igota, Urbasako interpretazio etxea.

Izen ematea:

[mendianeuskaraz@gmail.com](mailto:mendianeuskaraz@gmail.com)

...

## Udako mintzalagunak

Ohi bezala udan ere mintzapraktikarako taldeak osatuko ditugu uztailean eta abuztuan. Aukera dago hilabete batean edo bitan parte hartzeko. Ikasturteko funtzionamendu bera izango dute, astean behin ordu betez mintzapraktika egitea. Izen ematea **ekainaren 1etik 21era** izango da, beraz, animatuz gero, jarri gurekin harremanetan [mintzalaguna@bagera.eus](mailto:mintzalaguna@bagera.eus) helbidean edo 943005074 telefono zenbakira deituz.

## Donostiako Kantu Jira

Ekaineko kantu Jira ohi bezala hirugarren larunbatean ospatuko da, **ekainaren 15ean**, eguerdiko 12:00etan, ohi bezala, Elkar Megadendatik abiatuta. Egun horretan denok ezagutzen ditugun euskal kanta tradizionalak abestuko ditugu.

## San Joan bezperako usadioak eta erromeria

Udako solstizioa ekainaren 21ean izan arren, erlijioaren eraginez, San Joan bezperan ospatzen da, **ekainaren 23an**. San Joan bezpera Euskal Herriko sorginen gaua zela-eta, San Joan lore-sortak egiten ziren, gaitzak uxatzeko, etxea babesteko edota urte osorako osasuna ziurtatzeko.

Ohitura zaharra berreskuratu nahian, aurten ere Bagera Elkartek, lore-sortak egiteko lore eta landareak banatuko ditu urtero bezala; Aieten, Antiguan, Bidebietan, Egian, eta Saguesen.

San Joan Lore Sorta behar bezala osatzeko honako lore eta landare hauek bildu behar dira:

**Usaina duen lorea:** arrosa edo mihilua (foeniculum vulgare), **fruitua ematen duen landarea:** *urteko uzta oparoa izan dadin* galburua, arto landarearen zatia, babarrun edo patata hostoa... , **basoko landare edo zuhaitz-hostoak:** garoa, lizarra... eta **San Joan lorea:** Gipuzkoan bitxilorea izan ohi da (Leucantenum).

*Gipuzkoako herri askotan sortari erramua ere erants lekiok, erramua osagai magiko garrantzitsua izaten baita.*



## Erromeria

Bestetik, egun berean, 19:00etatik aurrera, Parte Zaharreko Plaza Berrian, San Joan bezperako Agintarien Esku Dantza amaitu ondoren, **erromeria** antolatu dugu urtero bezala. Nora Garcia eta Jone Murua izango dira dinamizatzaileak Donostiako Udaleko Txistularien bandaren laguntzaz.